

**Jon O. Urain**

Bazuen zer ospatu, baina igandean ez zen berandu etxeratu Markel Olano Gipuzkoako EAJko ahaldu nagusia (Beasain, Gipuzkoa, 1965). «Garagardo bat, eta etxera». Izan ere, lanak izan zituen bozen bihar amunecan ere; besteak beste, hedabideei erantzuten. Eguerdian mintzatu zen BERRIAREKIN.

**Gipuzkoan, hazi zarete boto eta batzarkide kopuruan. Balorazioa, beraz, positiboa da?**

Salbuespenak salbuespen, herri batzuetan atzerapausoak eman ditugula, Gipuzkoako EAJrentzat emaitza borobilak izan dira; hain zuzen ere, orain dela lau urteko emaitzen konfirmazioa izan direlako, berresten dituztelako. Esanahi politiko berezia dauka.

**Sentitzen duzue lau urteotako jarduna saritu dizuetela herritarrek?**

Uste dut errekonozimendu garbi bat egon dela. Guk azken lau urteetan, kudeaketaren ikuspegitik, aurrerapausoak eman ditugu; erakunde moduan gure programa bete dugu, baina hauteskunde hauetan balio erantsi bat zegoen ereduaren ikuspegitik; politika egiteko modua aldatzen saiatu gara, eta horrek Gipuzkoako herritarren partetik babesa izan du. Ez zait iruditzen kudeaketa soila izan denik babestua, baizik eta baita guk izan dugun jarrera politikoa ere.

**Kanpaina planteatu zenuten bi ereduren arteko lehia moduan. EH Bildu hazi da, baina zuen igotza handiagoa izan da. Bazekiten oso lehia estua izango zela? Arriskuan ikusi duzue aldundia?**

Giltzarri nagusia izan da hauteskunde taktika bat egon dela; ezker abertzalearen partetik, ikusirik duela lau urte izan zuen emaitza eta horrek Gipuzkoako erakunde ugari uztera behartu zituela, euren ikuspegia urardotzeko saio bat egon da. Egon da euren irudia nabarmen biguntzeko saio bat. Azken lau urteetan, Batzar Nagusietan, bi ereduren arteko talka bat egon da, eta kanpaina batek ez du hori aldatzen. Oraindik zalantzatan jartzen dute ea ezker abertzaleak eta EH Bilduk hauteskundeotan egin duten mugimendu hori estrategikoa edo taktikoa izan den, hor dago zalantza. Nahiko nuke estrategikoa izatea. Izango dugu denbora eta aukera benetan ikusteko aukera daukagun ados jartzeko eta ereduaren inguruan aurrerapausoak emateko elkarrekin, ala hauteskunde kanpainako maniobra taktiko hutsa izan den.



# «Ez da kudeaketa soila: gure jarrera politikoak ere babesa izan du»

**Markel Olano** • EAJko Gipuzkoako ahaldu nagusia

Igandeko bozetan herritarrek «errekonozimendu argi bat» egin diote EAJri, Olanoren ustez. «Mugimendu bat» nabari du EH Bildun, baina zalantza du hori «estrategikoa» izan den, ala «taktikoa» baino ez.

**Zuk zeuk zer espero duzu? Zabal daitekeela aro berri bat bien arteko harremanetan?**

Irudipena daukat alderdi politiko guztiok etxe barruan kontraesanak ditugula, eta, batik bat eredu sozioekonomikoaren ikuspegitik, gizarte kohesioarenetik, lehiakortasun ekonomikoarenetik, Gipuzkoak aitzindarizta puntu bat badaukala Euskal Herrian. Baldintza objektiboak daude Gipuzkoako kohesio eredu horren inguruan adostasunak lantzen jo-

ateko. Hala ere, iruditzen zait kontraesanak egon daitezkeela, eta badaudela beste eragile batzuk; ELAren rola... Norberak etxe barruan egin beharra dauka bere digestioak, eta hortik zailtasunak ikusten ditut.

**Gipuzkoan bezaia, gora egin duzue Bizkaian eta Araban; Nafarroan, hazi da Geroa Bai, baina gobernua galduko du.**

Guk alderdi barruan zatiketa izan genuenean, garbi ikusten genuen zatituta joanda ahuldu egiten za-

rela, eta uste dut Nafarroan hori gertatu dela; aldiz, eskuinak bat egin du, eta horrek ematen dio indarra, hauteskundearen mekanikarengatik. Hori herri gisa lezio on bat da. Askotan egiten ditugu irakurketak Euskal Autonomia Erkidegoaren ikuspegitik, baina uste dut Euskal Herri osoaren irakurketa bat egin behar dela, eta lurralde bakoitzean izan dugun esperientziatik ikasi beharra daukagula. EAEn ikusi da normalean gure herritarrek Espainian dago-

en olatu eskuindar horren aurrean gure alderdi ikusten dutela aingura gisa; eusten diola gure autogobernu sistemari, eta guregan konfiantza daukala arlo horretan Espainiako zentralismo indartu horri aurre egiteko.

**«Politikagintza oso krisi sakonean dago, eta guk ezarri dugun estilo eta prozedura politikoa da niretzat etorkizuna»**
**PSE-EEK ere batzarkide kopurari eutsi dio. EAJ-PSE ituna, luzerako?**

Gaur goizean [atzo] gure taldea biltzeko betarik ez da egon, eta egin beharra daukagu hausnarketa bat hauteskundeaz, eta, hortik aurrera, hurrengo urratsak egin. Oso hasieran gaude, eta denbora beharko dugu hori definitzeko.

**Hala ere, kanpaina zenioen «zirkunstantziak errepikatzen badira» PSErekiko aliantzari eustearen aldekoa zirela. Baldintzak berdinak dira?**

Hain justu, hori da hauteskundearen hausnarketa erantzun beharrekoa. Zirkunstantziak eguneratu beharra daukagu, eta ikusi orain baldintzek berriro ere urrats hori egitera eramaten gaituzten.

**Esan duzu, tokiko emaitza batzuk gorabehera, emaitza onak direla. Alkatetza batzuk galduta dituzue. Horiei buruz egin duzue aparteko analisirik?**

Eskualdeetan lehia estua egongo zela bagenekien, eta lehia estu horretan, batzuk irabazten dituzu, eta beste batzuk, galtzen. Gipuzkoan, eremu urbanoetan edo barnealdeko eskualdeetan daukagun portaerak erakusten du Gipuzkoaren erradiografia askotarikoa dela, eta horrek behartuko gaitu gauzak hobetzera. Hori da hauteskundeetatik atera behar dugun lezioa; jakin behar da galtezen, baina jakin behar da irabazten ere; lezio nagusia da lortu beharra daukagula jendearengana gerturatzea. Hori da lau urteotan egin dugun saioa; jendearen konfiantza berreskuratu. Politikagintza, oro har, oso krisi sakonean dago, eta guk ezarri dugun estilo eta prozedura politikoa da niretzat etorkizuna.

**EH Bildu lehen indarra izan den baina gehiengo absolutua lortu ez duen herrietan, EAJ-PSE itunak erabakiko du alkatea?**

Galdera hori zabalik egongo da euskal lurralde guzietan. Alderdiak erabaki beharko dute, eta, gure kasuan, gure batzorde eragileak erabaki beharko du zein den prozedura horrez herri.